



Lehiaren
Euskal Agintaritza
Autoridad Vasca
de la Competencia

EBAZPENA (1/2015 esped., ARABAKO DENTISTEN ELKARGOA)

Sumarioa:

toCOsoko bilkura

María Pilar Canedo Arrillaga andrea, presidentea

Natividad Goñi Urriza andrea, kidea

Rafael Iturriaga Nieva jauna, kidea

Idazkaria: Alfonso Gómez Fernández jauna

1. Lehiaren Euskal Kontseiluak (aurrerantzean, LEK) bilera egin du, goian aipatutakoak elkartuta, 2015eko urriaren 27an, eta honako Ebazpena eman du, 1/2015 ARABAKO DENTISTEN ELKARGOA espedienteari dagokionez.

I. AURREKARIAK

2. 2015eko martxoaren 6an, Lehiaren Euskal Agintaritzaren (LEA) Ikerketa Zuzendaritzak Lehia Defendatzeko Legeak (LDL) galarazitako ustezko jokabide batzuen berri izan zuen. Hain zuzen ere, ARABAKO ODONTOLOGO ETA ESTOMATOLOGOEN ELKARGO OFIZIALAK izan zituen ustez galarazitako jokabideok¹.

Aipatutako jokabideok Arabako Odontologo eta Estomatologoaren Elkargo Ofizialak egindako irratiri bidezko publizitate-kanpaina batekin lotuta daude. Kanpainaren edukia honako hau da:

«Zure hortzen osasunari dagokionez, ez fidatu merkealdiko eta sustapenetako tratamenduez.

Zure konfiantzazko dentistak bakarrik eskain diezazuke zure ahorako informazio eta tratamendu egokia.

Ez irentsi amua. Ezer sinatu baino lehen, informa zaitetz eta ziur egon.

¹ 15/2007 Legea, uztailaren 3koa, Lehiaren Defentsari buruzkoa, BOE, 159. zk., 2007ko uztailak 4; 3/2013 Legeak, ekainaren 4koak, BOE-A-2013-5940; 39/2010 Legeak, abenduaren 22koak, BOE-A-2010-19703 eta 2/2011 Legeak, martxoaren 4koak, BOE-A-2011-4117 aldatzen dutena. Testu bateratua <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2007-12946> (azken kontsulta 2015eko urriaren 30ean)



Arabako Odontologo eta Estomatologoek Elkargo Ofizialaren aholkua da.»

3. 2015eko martxoaren 9an, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalari (MLBN) hautemandako jokabideak deskribatzen zituen ohar labur bat helarazi zitzaion, horren euskarria zen dokumentazioarekin batera, 1/2002 Legeko 2.1 artikuluan jasotakoari jarraiki LEAren eskumena zela adierazita².

2015eko martxoaren 11n, MLBNk ofizio bat bidali zuen, jasotako proposamenari jarraiki LEA auziaz arduratzeko erakunde eskuduntzat jotzen zela jakinaraziz.

4. 2015eko martxoaren 11n, Ikerketako zuzendariak, Lehiaren Defentsarako Legearen 49.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, zehapen-espeditente bat irekitzea erabaki zuen, Lehiaren Defentsarako Legearen 1., 2. eta/edo 3. artikulua urratu izanaren arrazoizko zantzuak zeudela irizita.

Ebazpen horren bidez, aipatutako espeditentearen instruktoea izendatu zen.

Halaber, aipatutako ebazpenean, honako hauek jo ziren espeditente honetako alderdi interesduntzat:

- ARABAKO ODONTOLOGO ETA ESTOMATOLOGOEN ELKARGO OFIZIALA
- MERKATUEN ETA LEHIAREN BATZORDE NAZIONALA

5. 2015eko martxoaren 23an, espeditentearen instruktoeak ARABAKO ODONTOLOGO ETA ESTOMATOLOGOEN ELKARGO OFIZIALARI informazioa eskatzeko probidentzia bat eman zuen. Zehazki, honako hau eskatu zitzaion:

- Zer publizitate enpresak diseinatu zuen «2015eko publizitate-kanpaina».
- Aipatutako kanpaina zabaldu zuten komunikabideen zerrenda.
- Publizitate-enpresarekin sinatutako kontratuen kopia, baita komunikabideekin sinatutakoena ere, halakorik baldin bazegoen.
- Publizitate-enpresak «2015eko publizitate-kanpaina»-rako eskainitako testu alternatiboak, halakorik baldin bazegoen.
- 2015. urtean egitekoak ziren edo egin ziren bestelako kanpainen zerrenda.

Aipatutako informazioa 2015eko apirilaren 27an jaso zen.

² 1/2002 Legea, otsailaren 21ekoa, Estatuak eta autonomia-erkidegoek lehia babesteko dauzkaten eskumenak koordinatzeari buruzkoa (BOE, 46. zk., 2002ko otsailak 22).



II. AMAIERA ITUNDUKO PROZEDURA

6. 2015eko maiatzaren 11n, LEAren erregistroan, ARABAKO ODONTOLOGO ETA ESTOMATOLOGOEN ELKARGO OFIZIALAren idazki bat jaso zen. Idazki horretan, zehapen-prozedura itun bidez amaitzeko jarduerak abiatzeko eskatzen zuen.

7. 2015eko maiatzaren 27an, espedientearen instruktoreak probidentzia bat eman zuen. Horren bidez, ARABAKO ODONTOLOGO ETA ESTOMATOLOGOEN ELKARGO OFIZIALAK aurkeztutako eskaera, zehapen-prozedura itun bidez amaitzeko jarduerak hastekoa, onartu zuen.

Halaber, prozeduraren gehieneko epearen zenbaketa –probidentzia eman zuenetik itun bidezko amaiera gauzatu arte– eten zuen, eta eskatzaileari hilabeteko epea eman zion konpromiso-proposamen bat aurkez zezan. Aipatutako konpromisoen bidez espedienteaz aztergai dagoen jokabideak lehian izandako ondorioak konpondu behar dira eta interes publikoa behar bezala bermatu behar da.

2015eko ekainaren 29an, emandako epean beste hamabost asteguneko luzapena egitea erabaki zen, prozedura itun bidez amaitzeko konpromisoak aurkezteko.

8. 2015eko uztailaren 20an, LEAren erregistroan, ARABAKO ODONTOLOGO ETA ESTOMATOLOGOEN ELKARGO OFIZIALAK aurkeztutako konpromiso-proposamen bat jaso zen –Correoseko 2015eko uztailaren 17ko data zeukan–.

Honako konpromiso hauek aurkeztu zituen:

- Dentisten Elkargoak ez du halakoak barne hartzen dituen publizitaterik kontratatuko:
 - dentistek egiten dituzten lanen erreferentziazko prezioen inguruko gomendio zuzen edo zeharkakorik,
 - dentisten zerbitzuak emateko lehentasuneko eredurik, batez ere, merkatuaren banaketan eragina baldin badu.
- Dentisten Elkargoak ez du dentistek produktuak edo zerbitzuak merkaturatzeko erabiltzen dituzten moduen inguruko baloraziorik egingo, ez publikorik ez pribaturik (kasu zehatzetan epaitegi-errekamazioak egitea salbu).
- Dentisten Elkargoak Lehiaren Euskal Agintaritzaren aurretiazko txosten baten mende utziko ditu urtebeteko epean egiten dituen publizitate-kanpainak, prozedura itun bidez amaitzea ekarriko duen ebazpenaren jakinarazpen egunetik zenbatzen hasita.
- Dentisten Elkargoak bere webguneko toki nabarmen batean argitaratuko du itun bidezko amaiera ekarriko duen ebazpena. Aipatutako argitalpena urtebetez utziko da webgunean.



- Dentisten Elkargoak kideei banan-banan jakinaraziko die, posta arruntez edo elektronikoz, itun bidezko amaiera ekarriko duen ebazpenaren eduki osoa, eta LEAri egindako jakinarazpenaren eta horretarako erabilitako bitartekoaren kopia bat helaraziko dio.

9. 2015eko uztailaren 24an, aipatutako konpromiso-proposamena MLBNri bidali zitzaion, egokitzat jotzen zituen alegazio guztiak egin zitzaion, baita Lehiaren Euskal Kontseiluari (LEK) ere, horren berri izan zezan. Hori guztia Lehiaren Defentsarako Araudiko (LBA) 39. artikuluan xedatutakoari jarraiki³.

Emandako epea igarota, MLBNk ez zuen batere alegaziorik aurkeztu.

10. 2014ko urriaren 23an, IZk LEKi itun bidez amaitzeko erabakiaren proposamena bidali zion, zehapen-espedientearekin batera.

IZk proposamenean jasotako iritzia araber, ARABAKO ODONTOLOGO ETA ESTOMATOLOGOEN ELKARGO OFIZIALAK adierazitako konpromisoek publizitate-kanpaina geldiaraztea dakarte. Kanpaina horretan, Elkargoak odontologiako eta estomatologiako zerbitzuak ematen dituzten enpresa batzuen eskaintzekiko mesfidantza adierazten zuen eta balizko pazienteei «konfiantzazko dentistarenera bakarrik» joatea aholkatzen zien, eta hala, aipatutako zerbitzuak merkaturatzeko modu berrien profesionaltasuna zalantzan jartzen zuen. Beraz, IZren iritziz, konpromiso horien bidez espediente honetan aztertutako jokabideek lehiari eragindako ondorio kaltegarriak konpontzen dira eta interes publikoa behar bezala bermatuta geratzen da.

III. OINARRI JURIDIKOAK

1. Itun bidezko amaieraren lege-oinarria

11. LDLren 52. artikulua xedatzen duenaren araber, Lehiaren Batzorde Nazionaleko (LBN) –gaur egungo Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionala (MLBN)– Kontseiluak, Ikerketa Zuzendaritzak proposatuta, debekatutako akordio eta praktiken inguruko zehapen-prozedura amaitzea ebatzi ahal izango du, ustezko arau-hausleek espedientea irekitzea eragin duten jokaerek lehiari zituzten ondorioak konpontzeko konpromiso batzuk proposatzen badituzte eta interes publikoa behar beste bermatzen bada.

Konpromiso horiek lotesleak izango dira eta prozedurari amaiera ematen dion ebazpenean jasotzen direnetik aurrera izango dituzte ondorioak. Prozedura

³ 261/2008 Errege Dekretua, otsailaren 22koa, Lehiaren Defentsarako Araudia onartzen duena (BOE, 50. zk., 2008ko otsailak 27).



ezin izango da artikulua honetan zehazten den moduan amaitu, LDLren 50.4. artikuluan aurreikusitako proposamen-txostena aurkeztu eta gero.

LDLren aipatutako 52. artikulua garatuz, Lehiaren Defentsari buruzko Araudiaren 39. artikulua xedatzen du Ikerketa Zuzendaritzak, proposamen-txostena aurkeztu aurreko prozedurako edozein unetan, ustezko jokabide debekatuak izan dituztenek proposatuta, debekatutako akordio eta praktiken inguruko zehapen-prozedura bat itunduta amaitzeko jardunen hasiera erabaki ahal izango duela. Itundutako amaiera hasteari buruzko erabaki hori interesdunei jakinaraziko zaie. Halaber, itundutako amaierara arte prozeduraren gehieneko epearen zenbaketa etenda geratuko den adieraziko zaie.

Ustezko arau-hausleek beren konpromiso-proposamena aurkeztuko diote IZri, honek hitzarmen bidezko amaieraren akordioan zehazten duen epean. Epea, edonola ere, hiru hilabetekoa izango da gehienez. Proposamen hori Kontseiluari eta interesdunei helaraziko zaie, bidezkotzat jotzen dituzten alegazio guztiak egin ahal izan ditzaten.

Ondoren, Ikerketa Zuzendaritzak itundutako amaieraren proposamena Kontseiluari aurkeztuko dio, proposamena onartu eta prozedurari amaiera emango dion ebazpenean txerta dezan. Itundutako amaieraren proposamena jaso ondoren, Kontseiluak aukera izango du:

- a) Zehapen-espeditentea itundutako amaiera bidez ebazteko, aurkeztutako konpromisoak egokitzat hartuta.
- b) Aurkeztutako konpromisoek espeditentearen xede diren jokabideek lehiari izandako ondorioak behar bezala konpontzen ez dituztela, edota interes publikoa behar bezala bermatzen ez dutela ebazteko. Kasu horretan, epe bat eman ahal izango du, ustezko arau-hausleek Lehiaren Batzorde Nazionalaren Kontseiluari antzemandako arazoak konpontzeko konpromiso berriak aurkez diezazkioten. Epe hori igaro ondoren ustezko arau-hausleek konpromiso berririk aurkeztu ezean, eskaeran atzera egin dutela ulertuko da, eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren Kontseiluak zehapen-prozedurarekin jarraitzeko eskatuko dio Ikerketa Zuzendaritzari.

12. LDLren zortzigarren xedapen gehigarriaren arabera, legean LBNri eta haren zuzendaritza-organoei egiten zaizkien aipamenak, haien funtzioei, administrazio-ahalmenei eta prozedurei buruzkoak, arloan eskumena duten autonomia-erkidegoetako instrukzio- eta ebazpen-organoenak ere badirela ulertu behar da, LDLren 13. artikuluan aurreikusitako eskumenen ingurukoak baldin badira.

Horregatik, LEKek itun bidezko amaiera erabakitzeko eskumena du.



2. Elkargoak aurkeztutako konpromisoak

13. IZk Itun Bidezko Amaierarako Akordio Proposamena bidali dio LEKi, 1/2015 zehapen-espeditarekin lotuta. Proposamen horretan jasotzen duenez, Elkargoak adierazitako konpromisoek publizitate-kanpaina geldiaraztea dakarte. Kanpaina horretan, Elkargoak odontologiako eta estomatologiako zerbitzuak ematen dituzten enpresa batzuen eskaintzekiko mesfidantza adierazten zuen eta balizko pazienteei «konfiantzazko dentistarenera bakarrik» joatea aholkatzen zien, eta hala, aipatutako zerbitzuak merkaturatzeko modu berrien profesionaltasuna zalantzan jartzen zuen. Beraz, IZren iritziz, konpromiso horien bidez espediente honetan aztertutako jokabideek lehia eragindako ondorio kaltegarriak konpontzen dira eta interes publikoa behar bezala bermatuta geratzen da.

Ondorioz, LEKi aurkeztu diren konpromisoak onartzeko ebazpena ematea eta zehapen-espeditari itun bidezko amaiera ematea proposatzen dio.

LEK iritzi berekoa da; izan ere, zehapen-prozedura itun bidez amaitzeko proposatutako konpromiso berrien edukia egiaztatutako lehiaren murrizketak gainditzeko nahikoa dela eta interes publikoa behar bezala bermatuta geratzen dela uste du.

14. Itun bidezko amaieraren ebazpenak barne hartzen dituen konpromiso eta betebeharrak ez betetzea, LDAren 39.7 artikulua aplikatuz, arau-hauste oso larritzat hartuko da, LDLren 64.4.c artikuluan xedatutakoarekin bat; era berean, behartzeko isunak ezartzea eragin ahalko du, bai eta, hala badagokio, zehapen-espeditate bat irekitzea ere, LDLren 1., 2. edo 3. artikulua hausteagatik.

LEK honek, goian azaldutakoa aztertu ondoren,

IV. EBATZI DU

LEHENENGOA.- ARABAKO DEONTOLOGO ETA ESTOMATOLOGOEN ELKARGO OFIZIALARI irekitako zehapen-prozedura itun bidez modu loteslean amaitzea onartzea, Lehia Defendatzeko Legearen 52. artikuluan aurreikusitakoaren babespean.



BIGARRENA.- Itun bidezko amaieraren inguruko akordioa behar bezala betetzen dela bermatzeko, Elkargoak ebazpen honen eranskinean jasota dagoen konpromiso-proposamenean bildutako obligazioak bete beharko ditu.

HIRUGARRENA.- Ebazpen honen publizitatea eta kideentzako banan banako jakinarazpena, biak ere eranskineko konpromisoen artean jasoak, gehienez ere bi hilabeteko epean egin behar dira, jakinarazpena jasotzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita.

LAUGARRENA.- Ikerketa Zuzendaritzari itundutako amaierari buruzko erabakia eta, beraz, hartutako konpromisoak eta ezarritako betebeharrak, zaintzeko ardura ematea.

Eman bekio ebazpen honen berri Ikerketa Zuzendaritzari, eta jakinaraz bekie ARABAKO DEONTOLOGO ETA ESTOMATOLOGOEN ELKARGO OFIZIAL ohoretsuari eta gainerako interesdunei, ebazpen honek administrazio-bidea amaitzen duela adieraziz, eta administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ipin dezaketela EAEko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, aipatutako jakinarazpena egiten den egunetik hasita bi hilabeteko epean.

Eranskina: ARABAKO ODONTOLOGO ETA ESTOMATOLOGOEN ELKARGO OFIZIALAREN KONPROMISO- PROPOSAMENA

LEHENA.- Dentisten Elkargoak ez du halakoak barne hartzen dituen publizitaterik kontratatuko:

- dentistek egiten dituzten lanen erreferentziazko prezioen inguruko gomendio zuzen edo zeharkakorik,
- dentisten zerbitzuak emateko lehentasunezko eredurik, batez ere, merkatuaren banaketan eragina baldin badu.

BIGARRENA.- Dentisten Elkargoak ez du dentistek produktuak edo zerbitzuak merkaturatzeko erabiltzen dituzten moduen inguruko baloraziorik egingo, ez publikorik ez pribaturik (kasu zehatzetan epaitegi-erreklamazioak egitea salbu).

HIRUGARRENA.- Dentisten Elkargoak Lehiaren Euskal Agintaritzaren aurretzako txosten baten mende utziko ditu urtebeteko epean egiten dituen



publizitate-kanpainak, prozedura itun bidez amaitzea ekarriko duen ebazpenaren jakinarazpen egunetik zenbatzen hasita.

LAUGARRENA.- Dentisten Elkargoak bere webguneko toki nabarmen batean argitaratuko du itun bidezko amaiera ekarriko duen ebazpena. Aipatutako argitalpena urtebetez utziko da webgunean.

BOSGARRENA.- Dentisten Elkargoak kideei banan-banan jakinaraziko die, posta arruntez edo elektronikoz, itun bidezko amaiera ekarriko duen ebazpenaren eduki osoa, eta LEAri egindako jakinarazpenaren eta horretarako erabilitako bitartekoaren kopia bat helaraziko dizkio.